

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

LEHENDAKARITZA

6446

50/2021 DEKRETUA, abenduaren 23koa, lehendakariarena, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko (PLE) idazkari nagusia izendatzeko dena.

2017ko urriaren 10eko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko Mugaz gaindiko Lankidetzaren Hitzarmena berrikustea onartu zen, eta Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren estatutu berriak onartu ziren.

Partzuergoaren estatutuen 7. artikulua arabera, partzuergoaren presidentetza partzuergoko kideetako batek betetzen du, txandaka, estatutuetan bertan ezarritako ordenaren arabera. Presidentetza horrek 2 urteko iraupena izango du, eta, salbuespenezko egoeretan, urtebetez luza daiteke, gehienez ere.

Partzuergoaren estatutuen 9.1 artikulua arabera, Batzorde Betearazlea Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren erabaki-organoa da, Osoko Bilkurak hartutako jarraibide eta erabaki politikoak aplikatzeko.

Estatutu horien 11. artikulua arabera, idazkaritza nagusia da presidentetzaren ordezkaria PLEaren Partzuergoaren Batzorde Betearazlean.

2021eko abenduaren 13an, Alpen (Cerdanya, Katalunia) egindako Osoko Bilkuran, partzuergoaren presidentetza formalki eskualdatu zen; Kataluniako Autonomia Erkidegoak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zion, alegia. Hori horrela, Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoaren presidentetza Euskal Autonomia Erkidegoko lehendakariari dagokio, bi urteko iraunaldiarekin.

Horren arabera, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Mikel Antón Zarragoitia jauna izendatzea Pirinioetako Lan Elkartearen Partzuergoko idazkari nagusi.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko abenduaren 23an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.